

## Berakah



Las Escuelas K. 2  
San Bizente elizaren atzeko aldean

Pobreziaren eta desberdintasunen aurkako borroka da Vital Fundazioaren lehentasun nagusietako bat, gizarte justu eta berdinzaleago bat eraikitzeko bidean. Boluntariotik gorako taldearekin, Berakah programak, behar gorria duten pertsonen elikagaiak emateaz gain, hainbat zerbitzu eskaintzen ditu: aholkularitza gai legal eta juridikoetan edo prestakuntza eta autoenpleguaren alorrean, bitartekotza etxebizitzarekin lotutako gaietan, familien harrera, aisialdi-taldeak eta eskola-laguntzako taldeak, boluntarioen prestakuntza, etab.

Erakundeetatik berehalako erantzunik jasotzen ez duten pertsonentzako ekimen bat da. Horien artean aurkituko ditugu: oinarrizko beharrezanean aurre egiteko diru-sarrerara nahikorik ez duten familiak; ezegonkortasun ekonomiko handia duten pertsonak edo lana lortzeko zailtasunak dituzten iraupen luzeko langabetuak; immigrante heldu berriak, beste laguntzarik jasotzen ez dutenak edo egoera gero eta gehiago konplikatu eta etxerik gabeko pertsona baten profila dutenak; edo oinarrizko eskubiderik gabe daudenak, lan-merkatutik, etxebizitza-merkatutik, osasungintzatik, hezkuntza-prozesuetatik edo bestelakoetatik kanpo geratu direlako.

## Despentsa Solidarioa

Despentsa Solidarioaren proiektua Vital Fundazioaren eta Berakah-ren artean sinatutako akordioetako bat da. Jarduera doa kolektibo kaltetueneren gizarte bazterketaren prebentziora

bideratua, berehalako erantzuna lortzen ez duten pertsoneri laguntza emanez; izan ere, bere oinarrizko beharrianak estaltzeko nahiko diru-sarrerarik ez duten familiei irtenbideak ematea da lankidetzaren helburua.

Irabazi asmorik gabeko saltokia da, janaria eta higiene produktuak eskaintzen dituen eta San Bizente parrokiaren atzeko aldean kokatuta dagoena. Tokia duela gutxi berriro dute eta orain hobeto prestatuta dago eta zerbitzu hobea eskaintzen du.

Produktuak merkatuko prezioan ordaintzen dituzten herritarren erosketa solidario horren bitartez, familia askok janaria eta premia biziko artikuluak prezio baxuagoan eros ditzatela ahalbidetzen da, euren diru-sarreraren arabera. Prezioaren % 100 ordaintzen dutenek uzten duten irabazi-marjina beharrian handiena duten familiei eskaintzen zaizkien deskontuetara bideratzen da.

Instalazioak eraberritu ostean, interesa duten pertsona eta erakunde guztiei Eskola kalean (San Bizente parrokiaren atzeko aldean) eurekin elkarlanean aritzeko aukera eskaintzen jarraitzen du Despentsak, asteazkenetik ostiralera, 18:00etatik 20:00etara eta larunbatetan 10:00etatik 13:00etara.

## **Despentsa Solidarioaren Makina**

Erakunde biek pobrezia eta desberdintasunen aurkako borrokarekin duten konpromisoaren ildotik datorren ekimen berria. Lankidetzaren berritzaile hori makina banatzaile bat instalatzean datza. Makina horrek, euro 1etik hasita, behar duten pertsonentzat, janaria dohaintzan ematea ahalbidetzen du, dohaintzan eman den janariaren irudia daraman kutxatxo baten truke.

Vitoria-Gasteizko El Boulevard merkataritza gunearen barruko aldean dago kokatuta eta laguntzeko interesa duten pertsoneri dohaintza egiteko aukera anitz eskaintzen dizkie, euro batetik hasita hamar euroraino, aukeratzen dutenaren arabera, produktu bakarra izan daiteke edo janari sorta bat. Lortzen diren dohaintza guzti-guztiak Despentsa Solidarioa hornitzera bideratuko dira.

Informazio gehiago [www.berakah.es](http://www.berakah.es) webgunean.

## **Irudien galeria**



Zabaldu



Zabaldu